

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 30a / 474. zenbakia



Euskaraz jolasean

Martin Iturrikastillok umeendako ordenagailuak merkaturatu ditu

FUTBOLA: BERGARA-UDA ZAPATUAN/10 • 'BERGARA EZAGUTZEN': IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK/13


RENAULT

MEGANE GAMA

Oraingo neguan, lau izarreko segurtasuna salneurri ezin hobean*.

(ABS, 4 aire-poltsa, larrialdietan balaztatzeko sistema, eta abar)



MEGANE

BERLINA AUTHENTIQUE

1.4 16 V (95 ZP)

11.617,56 euro / 1.933.000 pezeta



MEGANE

SCENIC AUTHENTIQUE DTi

(80 ZP)

14.820,96 euro / 2.466.000 pezeta



MEGANE

COUPE EXPRESSION

1.4 16 V (95 ZP)

12.230,60 euro / 2.035.000 pezeta

*60 hilabeterako finantzaketa eta lau kuota doan. 2002ko apirilera arte goza ezazu zure Megane autoaz euro bakarra ordaindu barik.

MECA

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. **BERGARA**. Tel.: 943 76 40 68

Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. **ARRASATE**. Tel.: 943 71 24 72



ATREBENTZIAEZPADA/ Bikote homosexualen eskubideak izan bihar dittuzte?



ANDRES ARBULU
31 urte

Bai. Euren ardura eta sentimenduak danon berdiñak dauzke-eta. Lege aldetik be berdiñak izan biharko zien. Umiak adoptatzeko orduan be danon igual izan biharko ziela uste dot.



JAVIER MANZANO
35 urte

Printzipioz bai; berdiñak izan biharko giñake. Umiak adoptatzeko orduan, ohiko pareja hobe dala uste dot, baiña, bikotia sexu berekua izatian be ez dot uste problemarik egongo danik.



GARBIÑE GORRIA
42 urte

Bai, pertsona guztiek dauzkagulako eskubide berdiñak, edo euki biharko giñuzke, behintzat. Umiak adoptatzeko orduan be, berdin. Bestiak bezain guraso onak izan leizke.



MONTSE RUIZ
37 urte

Bai, berdiñak. Danondako eskubide berdiñak egon bihar diela uste dot. Umien kasuan ez dakit, ez dot iñoiz horren gaiñian pentsau. Galdera hori zalantzan lagatzen dot.



TOMAS LASA
81 urte

Nik gauza horrek ez dot entenditzen, baiña aukera berdiñak izan bihar dittuela uste dot. Umiak adoptatzeko be, berdin. Lege aurrian danok berdiñak izan bihar gara.



JESUS KALBOETXEAGA
65 urte

Eskubide berdiñak izan bihar dabe, baitta umiak adoptatzeko orduan be. Kontua da, gu moduko nagusixei, holako gauza bat etxian tokau ezker, onartzia kostatzen jakula.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK UMEKIN EUSKARAZ JOLASTEKO Gurasoei beren seme-alabekin euskaraz jolas egiteko ikastaroa antolatu du aurten ere Udaleko Euskara zerbitzuak. Euskarazko jolas, kanta eta ipuinen bidez, umeen emozio heziketa bultzatu nahi da, eta baita umeen eta familiako arteko afektibitatezko loturak indartzea ere. Ikastaroan izena emateko epea bihar arte dago zabalik. /MONIKA BELASTEGI

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

Domingo Irala kalea

Kalea txukundu eta lur azpiko aparkalekua egiteko proiektuaren idazketa lehiaketara.

ASTEKO BERRIAK /7

Martin Iturrikastillo

Aitor Ikastolan eta Aitor Berritsu umeendako euskarazko ordenagailuak merkaturatu ditu.

ZAHARRAK BERRI /14

Eskulan ikastaroa

Hemeretzi emakume ari dira San Joxepeko egoitzan urtero egiten duten eskulan ikastaroan.

ASTEKODATUA

2

ASTINDU ALDIZKARIAREN BIGARREN ALEA KALEAN DA

Bergarako Gazte Asanbladako kideek kaleratzen duten *Astindu* hilabetekariaren bigarren alea gaur kaleratu dute. Ale horretan cannabisa eta neoliberalismoa bezalako gaiak jorratzen dituzte.

BESTEKEESANA

“

Niretzat Kurruli hil zen uena izaugarria izan zen. Nik garai hartan ez nuen bizi kalera ateratzeare-

na-eta, baina berak bai; eta gauero egoten ginen hitz egiten. Gau hartan ez, ordea, eta goizean etorri zen kartzeleroa eta, "Etxaniz emango al diozu masaje bat honi?" (ni orduan masajeak eta ematen ibiltzen nintzen). Joan nintzenez hilda zegoen. Hasi ginen masaje kardiakoak ematen, baina ez zen ezer egiterik. Hotz-hotz zegoen, hilda. Kolpea ikaragarria izan zen. (...) Ama hil zitzaidanean ere hiru egun beranduago esan zidaten Puerto Iñ, 1993an. Orduan planto egin nuen eta etxekoekin hitz egin artean ni handik ez nintzela mugituko esan nien. Jipoitu ninduten hamar-hamabi txakurren artean eta zigor zeldetara".

JOSE MARI ETXANIZ
Argia/01-11-25

BERAIEKDIÑO/ Mikel Elkoroberezibar



Dispertsioari stop

Azkenengo orduan jasotako enkargua izan da irakurtzen ari zaretzen artikulua, eta aukeran nituen gai askoren artean (Garzonen sarekadak, ekonomiaren hoztea, igerilekuen proiektu berria, Gazte-txea...) Jabi Lazkanok bizi duen egoerari buruz idatziko dut. Askok pentsatuko dute, "badator betikoa, betiko txapa sartzen", eta agian arrazoia ez zaie falta, baina *Cronicas marcianas* edo DVko Realaren kronika irakurtzen dutenean, betiko txapa berdina izan arren, gustura asko egoten dira.

Dagoeneko 7 urte daramatza Alcazar de San Juaneko kartzelan. Kartzela txikia, zaharra, botatzear dagoena. Berak dioenez: "bertara praktketan dauden funtzionarioak bidaltzen dituzte". Kartzeletu zutenetik preso arriskutsu moduan dago sailkaturik. Isolamenduan daukate eta egunak dituen 24 orduetatik, 22, ziega barruan

pasatzen ditu. Azkenengo 7 urteak horrela bizi izan ditu. Su-etenean zehar ere berdin eduki zuten.

Bere egoera ez da bakar, PSOEk, EAJren laguntzarekin, dispertsioa martxan jarri zutenetik euskal herritar ugari jasaten dute politika hori. Gaur egoerari buruz idatziko dut. Askok pentsatuko dute, "badator betikoa, betiko txapa sartzen", eta agian arrazoia ez zaie falta, baina *Cronicas marcianas* edo DVko Realaren kronika irakurtzen dutenean, betiko txapa berdina izan arren, gustura asko egoten dira.

"Jabi kartzelatu zutenetik preso arriskutsu moduan dago sailkaturik. Eguneko 24 orduetatik, 22, ziegan pasatzen ditu"

Ibarretxe lehendakaria, berriz, ez zen agertu. Orduetik, zoritxarrez, gauzak zeharo aldatu dira, eta Bilbon egindako azken manifestazioaren pankartaren atzean Arzalluz falta zen. Berriz ere dispertsioaren gaia euren agendatik atera nahi dute, eta hori horrela izan ez dadin guztion esku dago. Horrelakoekin nekeza izango da Jabiren egoera aldatzea, baina behintzat inork ez dezala esan horren berri ez zeukanik.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91

ISSN
1130-6599

TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 30
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74

ZAPATUA, 1
PUY, Barrenkale 25..... 943 76 16 87

DOMEKA, 2
PUY, Barrenkale 25..... 943 76 16 87

ASTELEHENA, 3
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05

MARTITZENA, 4
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63

EGUAZTENA, 5
MOZOS, San Pedro 4..... 943 76 12 15

EGUENA, 6
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda)..... 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa..... 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa..... 943 76 62 46
Ertzaintza..... 943 76 53 40
Osasun etxea..... 943 76 24 40
Asepeyo..... 943 76 16 43
Pakea..... 943 76 13 49
Angiozarko medikua..... 943 78 90 27
Antzuolako medikua..... 943 76 62 23
Odol emaleak..... 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak..... 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea..... 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea..... 943 76 62 46
Udal Artxiboa..... 943 77 91 32
Igerilekuak..... 943 76 20 51
Kultura etxea..... 943 77 91 58
Liburutegia..... 943 77 91 62
Kiroldegia..... 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia..... 943 76 14 92
Erregistroa..... 943 76 13 15
Jardun..... 943 76 36 61
Idolaz..... 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara..... 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk..... 943 76 62 71
Postetxea..... 943 76 26 85
Bedelkar..... 943 76 04 68
Akulu AEK..... 943 76 05 18
Udal eskualtegia..... 943 76 44 53
Bergarako notariotza..... 943 76 10 73

MEZAK

Santa Marina	Domekak: 10:30.
Domekak:	Labegaraieta
11:30, 13:00.	Domekak: 11:00.
Zapatuak: 19:00.	San Lorentzo
Lanegunak: 19:15.	Zapatuak:
San Pedro	20:00.
Domekak:	Angiozar
09:30, 12:30.	Domekak:
Zapatuak eta	11:30.
lanegunak: 19:00.	Moja
Sierbak	Zaharrak
Lanegunak: 19:30.	Lanegunak: 8:00.
Osintxu	Mizpirualde
Domekak: 12:30.	Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 19:00.	Zapatuak: 17:30.
Elosu	Antzuola
Domekak: 10:30.	Domekak:
Ubera	09:00, 11:30.
Domekak:	Zapatuak eta
10:30.	lanegunak: 19:30.
San Juan	Uzarraga
Domekak: 11:00.	Domekak: 10:00.
San Prudentzio	

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

OHARRAK

ESKI ETA MENDI MATERIALAREN AZOKA TXIKIA
Aurten ere, Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatutako eski eta mendi materialaren azoka txikia izango da abenduaren 10etik 15era. Hori dela eta, material batzea egingo da abenduaren 5era arte, aste barruan, 19:00etatik 20:30era Pol-Polen bertan. Mendizaleei parte hartzeko dei egin diete antolatzaileek.

ALARGUNEN BAZKARIA
Azken urteotako ohiturari eutsiz, alargunen elkarteak bazkideek bazkaria egingo dute abenduaren 8an, Sirimiri jatetxean. Bazkaria joateko interesa dutenek elkartean bertan eman dezakete izena.

1977AN JAIOTAKOAK
1977an jaiotako bazkaria izango da abenduaren 22an jatetxean. Izena ematea Tito's tabernan egin daiteke, abenduaren 12ra arte.

1951N JAIOTAKOAK
Joan den azaroaren 10ean 1951n jaiotako afarira joan zirenek argazkia eta egutegia Kiñu argazki dendan jaso dezakete. Egutegian Gabonetako loteriako zenbakia azaltzen da. 1.000 pezetako txartelak dira.

JARDUNENAGENDA

ASTE BUKAERAKO AISIALDIA
Zapatu arratsaldean, eskulanak izango dira Kartzelan. Domeka arratsaldean, berriz, *Euroaren bila* jokoa egingo da.

'BERGARA EZAGUTZEN'
Lehiaketan parte hartu nahi duten 14-18 urte bitarteko gazteek izena eman dezakete Jardunen.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Espainiako Erregeak Justo Garate kondekoratu zuen

Espainiako Erregearen erabakiari jarraituz, Argentinako kontsul espainiarrak Isabel Katolikoaren Ordenaren Zaldun Gurutzeari eman zion Justo Garateri 1991ko azaroan. Mendoza hiriko Mediku Zientzien Fakultatearen omenaldia ere jaso zuen Garatek. 1936a ezkererako han bizi izan zen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Lupardia"

1. Izotz handia (esaldi adierazkorretan bakarrik).
-Gaur gabian kriston lupardia bota jok.
-Azelakotxe lupardia dagon.
2. Mozkorra.
-Iez San Martzialen guk arrapau giñuan lupardia guk



ASTEKOFILMAK

'PECADO ORIGINAL'

ZUZENDARIA: MICHAEL CRISTOFER. AKTO-REAK: ANTONIO BANDERAS, ANGELINA JOLIE, THOMAS JANE.

HARIA. Julia Russell (Angelina Jolie) oso emakume gartsua da. Harekin ezkondu eta Luisek (Antonio Banderas) zorientasuna topatu duela uste du. Baina gauzak okertzen hasiko dira...

TOKIA ETA ORDUA. Novedades aretoan. Egubakoitzean 22:30ean, zapatuan 19:30ean eta 22:30ean, domekan 19:30ean eta 22:15ean, eta astelehenean 19:30ean.

PUNTAUZIOA: ● ● ● ● ●



'DIGIMON'

HARIA. Umeei zuzendutako filma zapatu eta domeka arratsaldeko emanaldietan. Digimonek eta haren lagunek talde sendoa osatzen dute eta indar maltzur baten atzean ezkututzen den misterioa argitzen ahaleginduko dira. Era berean, arrisku handienei aurre egin beharko diete. Digimonen jarraitzaileendako espresuki egoniko filma.

TOKIA ETA ORDUA. Novedades aretoan. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTAUZIOA: ● ● ● ● ●

BERGARA Margoak

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

HIRIGINTZA/Proiektua idazteko baldintzak lehiaketara atera ditu Udalak, asteleheneko osoko bilkuran onartu eta gero

Irala kalea urbanizatzeko eta azpian aparkalekua egiteko asmoa du Udalak

MONIKA BELASTEGI

Domingo Irala kalea urbanizatzeko proiektua idatzi eta obra horien zuzendaritza eramateko baldintzak kaleratu ditu Udalak. Proiektuak hiru xede izango ditu: Irala urbanizatzea, Barrenkaleko etxe osteak txukuntzea eta Irala azpian aparkalekua eraikitzea.

Asteleheneko osoko bilkuran, eta EAJ/EA, Batasuna eta PSE-EE alderdien oniritzia jaso ondoren, Irala kaleko urbanizazio proiektua idazteko baldintzak kalera-tuko ditu Bergarako Udalak, baita obra horiek gauzatzeko orduan zuzendaritza eramateko ere. Lizitazio oinarria 13.200.000 pezetakoa da.

Proiektuak hiru xede ditu: batetik, Domingo Irala kalea txukuntzea; bestetik, Irala kalearen azpian -Seminarioan hasi eta Irizar pasealekuko bidegurutzeraino- aparkalekua eraikitzea; eta, azkenik, Barrenkaleko zenbaki bakoitien etxeetako atzeko fatxadak egokitzea.

AZALERAKO TRATAMENDUA

Domingo Irala kalearen urbanizazio lanei dagokienez, azaleko tratamendua egingo dute. Luzeran Irala kale osoa hartuko du, eta zabaleran, adreiluzko etxe berriagoetatik Barrenkaleko etxeen osteraino; hortaz, gaur egun dauden Gaspar etxeeko garajea edo Zabala etxeeko lorategiak kendu egingo lituzkete. Lur zati horiek ia guztiak Udalarenak dira; ez denak. Udalak horretan dihardu.

Bestalde, oinezkoendako zein ibilgailuendako izaten jarraituko du Domingo Iralak proiektua gauzatzeko denean ere.



Irudian ikusten diren Gaspar etxearen garajea eta Zabala etxearen lorategia kendu egin beharko dituzte proiektua gauzatzeko.

MONIKA BELASTEGI

Irala kalea urbanizatzea proiektuaren xedeetako bat den arren, zein itxura izango duen ezin daiteke oraindik jakin. Arkitektoek oinarri horren gainean egin beharko dute lan, baina bakoitzak bere itxura eman diezaiolke urbanizazio lanari.

ETXEEN ATZEKO FATXADA

Iralako urbanizazio lanekin batera, bigarren xede gisa du Barrenkaleko zenbaki bakoitien etxeetako fatxadak -Irala kalera ematen duten fatxadak, hain zuzen ere- txukundu eta egokitzea.

*Domingo Irala
kalearen azpian
solairu bateko
aparkalekua egingo
dute*

LUR AZPIKO APARKALEKUA IRALA KALEAREN AZPIAN

Horixe da proiektuaren hirugarren xedea: Irala kalearen azpian aparkalekua eraikitzea, hain jus-

*Irala urbanizatu
eta Barrenkaleko
zenbaki bakoitien
atzeko fatxadak
egokituko dituzte*

tu ere. Aparkaleku hori Seminarioan hasi -telefono kabinan, gutxi gorabehera- eta Irizar pasealekuko bidegurutzeraino luzatuko da, seguruenik.

Sarrera Telefonicarean eraikinaren parean egongo da eta irteera, berriz, Irizar kalean, Galarreta zapata denda inguruan. Solairu bakarrekoa izango da, eta autoak zeharka aparkatu beharko dira, bi ilaratan. Ilaren artean autoak sartu eta irteteko bidea egongo da.

Udalak, oraingoz, proiektua idazteko baldintzak lehiaketara atera baino ez du egin. Hortaz, ezin da oraindik zehaztu lanak noiz egingo dituzten. Bestalde, lanek izango duten aurrekontua 200 milioi ingurukoa izango da.

Irabiko langileek mugagabeko greba hasi zuten astelehenean

MONIKA BELASTEGI

2001eko enpresa ituna negoziatzen aritu dira zuzendaritzarekin, eta erredakzioa ixteko orduan, oraindik akordioa egin barik zeuden. Adostasuna lortu ezean, grebarekin jarraitzeko ak ziren.

Astelehenean, mugagabeko greba hasi zuten San Juan auzoan dagoen Irabi lantegiko langileek.

Langileen ordezkari Jesus Mari Etxanizen esanetan, zazpi hilabete igaro dira Irabiko langileak eta enpresa zuzendaritza

aurtengo enpresa ituna negoziatzen hasi zirela. Baina, hala eta guztiz, oraindik ez dira adostasunera iritsi. Jesus Mari Etxanizek gehitu duenez, ezadostasunaren arrazoi nagusia lanaldia murriztea da.

IRAUNGI LANTEGIKO LANGILEEN BALDINTZA BERBERAK

Irabi bere alboan dagoen Iraungi enpresaren filiala da. Iraungin dagoeneko adostu dute enpresa ituna. Eta Irabikoek euren ituna Iraungikoek baldintza berberetan negoziatu nahi dute, filiala diren neurrian.

Jesus Mari Etxanizek azaldu duenez, hori ez da horrela izan lanaldiari dagokionez, eta "diskriminatuta sentitzen gara. Iraungin lanaldia 2001ean 15 ordu eta 2002an 16 ordu gutxitzea adostu zuten. Guri, aldiz, Hitzarmen Probintzialak dioena aplikatu nahi izan digute, hau da, 2001ean 11 ordu eta 2002an 12 ordu gutxitzea".

Horrekin guztiarekin, eta Etxanizek eguaztenean esan zuenagatik, enpresa zuzendaritzak negoziazioarekin aurrera egiteko urratsik eman ezean, jarrera gogortzekoak ziren.



Irabiko hemezazpi langileak etorri dira bat muga gabeko grebarekin.

MONIKA BELASTEGI

GAZTETXEA/ Jardun euskara elkarte, berriz, liburutegian egokitzeko aukera aztertzen dihardute

Gaztetxea, kartzela zaharrean kontzertuak egiteko aukerarekin

MONIKA BELASTEGI

Kartzela zaharrari irtenbidea aurkitu diotela azaldu du alkateak; kontzertuetarako gune izateko soluzioa aurkitu diotela, hain justu. Hori horrela, kartzelariaren etxea eta kartzela zaharra gaztetxearen esku geratuko dira. Jardun kultura etxean egokituko dute.

Irtenbidea kartzela zaharraren izaera aldatzean oinarritu da. Hain zuzen, ikuskizun areto kalifikazioa izatetik, ekitaldi areto kalifikaziorako aldatetan. Hala azaldu zuen Victoriano Gallastegi alkateak joan den egubakoitzeko prentsurrekoan.

Irtenbide horretara heltzeko, Iñaki Berasategi arkitektoarekin harremanetan jarri, eta kartzela zaharrean kontzertuak eman ahal izateko irtenbide posibleak aztertzeke eskatu zioten. Bestalde, eraikina legalitatearen barruan egokitzeko proiektua idaztea ere Berasategi arkitektoari enkargatu diote. Egokitzapenak 80 milioiko aurrekontua izan dezake.

Gauzak horrela, duela ia bi urte Udalak eta Bergarako Gazte Asanbladak adostutako proiektua gauzatzeko bidean dago: hau da, kartzelariaren etxea eta kartzela zaharra BGAREN esku geratzeko. Helburu horrekin, hain justu, eta Eusko Jaurlaritzako Jolas eta Ikuskizun Sailarekin eta Zubillagako suhiltzaileekin harre-



Orain arte, Jardun eta BGAK erabili dituzte bai kartzela zaharra baita kartzelariaren etxea ere.

manetan egon ondoren, kartzela zaharra ekitaldi areto gisa legalizatuko dutela aurreratu zuen alkateak. Gainera, 700 lagun baino gutxiagorendako lekua duenez -367, hain zuzen- eraikinaren eskumena Udalaren esku geratuko da. Horrela, BGAKo kideek, ekitaldiren bat egiteko orduan,

Udalari jakinarazi beharko diote, besterik ez.

JARDUN, LIBURUTEGIRA

Jardun elkartearen kasuan, kultura etxean, gaur egun liburutegia dagoen tokian, kokatzeko aukera aztertzen dihardutela azaldu zuen alkateak. Eta aldi bere-

an, liburutegia Arrizuriagako etxera eramateko posibilitatea.

Jardunek ere, bulegoetarako tokiaz gain, umeekin jarduteko gune zabalagoa behar du. Alkateak aurreratu zuenez, liburutegikoa nahikoa ez balitz, Santa Anan beste eraikin bat egokitu-ko litzateke.

LABUR

Martxoaren 8rako ekitaldiak antolatzeko deialdia

Herriko emakume talde bat Martxoaren 8rako hainbat ekitaldi prestatzen ari da. Antolaketa lagundu eta taldean parte hartzeko deialdia egin du. Interesa duen edonork har dezake parte taldean. Harremanetarako telefonoa: 606653703.

Bedelkarrek Gabonetako zozketa egingo du

Aurten ere, Gabonetako zozketa egingo du Bedelkarrek. Bostehun mila pezeta (3.005 €) banatuko ditu ehun mila pezetako (601 €) bost saritan banatuta. Ohitura den moduan, zozketa parte hartzeko zenbakiak herriko hainbat komertzio, taberna eta jate-txetan banatuko dituzte, erosketa egin eta gero. Zozketaren eguna datorren urteko urtarriaren 7a izango da.

Horrez gain, herritarrei abenduko egubakoitzak alaitzeko, hainbat musika ekitaldi antolatu ditu Bedelkarrek: abenduaren 7an, Jarduneko trikitilariak kalerik kale ibiliko dira; 14an, Musika Eskolako Txistuak arduratuko dira musika jartzeaz; 21ean, Musika Eskolako haizea eta akordeoiak, eta, azkenik, abenduaren 28an, Musika Eskolako saxofoiak arduratuko dira kaleak alaitzeaz.

OGIZUN

koop. elk.
okindegia




San Pedro 21 BERGARA 943 76 20 49
Zubillaga 10 ONATI 943 78 24 13

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g. BERGARA 943 76 05 09



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA 943 76 14 95

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA



Urteaga 9 BERGARA
Tf. 943 76 18 45

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

Usoa Pub



943 76 38 57
Irala 1. Bergara

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

ELKARRIZKETA

MARTIN ITURRICASTILLO/ALDAY TECHNOLOGYS-EKO ZUZENDARIA

“Aitorrek jostailuen arloan dagoen euskararen normalizaziorako hutsunea betetzen du”

MONIKA BELASTEGI

Martin Iturricastillok urteak daramatza umeendako jolas hezigarriak egiten. Azken kreazioa *Aitor Berritsu* eta *Aitor Ikastolan* ordenagailuak dira. Helburuak: umeek ikastea eta teknologia berrietara egokitzea.

Zer da Aitor ordenagailua?

Ingeleseztik ELA deritzon ordenagailua da, hau da, Hezkuntzarako Laguntza Elektronikoa. Ikastetxeetan jasotako eskolen osagarria da, alde batetik; eta, bestetik, umeak teknologia berrietara hurbiltzen joateko lagungarri ere bada. Hori guztia baina, alderdi ludikoan, jostagarrian oinarrituta.

Ordenagailu horiek hainbat hizkuntzatan daude, baina orain arte ez zegoen euskarazkorik. Nik uste, jostailuaren arloan dagoen hizkuntz normalizaziorako hutsunea betetzen dutela.

Nola otu zitzaizun ideia?

Urteak daramatzat umeendako ordenagailu hezigarriak egiten, baina gazteleraz eta ingelesez, batez ere. Banekien euskaraz egiteko gai ere izango nintzela. Bestalde, kontraesankorra da ume euskaldunen %70 euskaraz ikasten aritzea, eta jolasteko gaz-

telerazko ordenagailuetara jo beharra. Horrela, *Aitor* egin, eta aurten jarri dut salgai.

Bi Aitor dira.

Bai, *Aitor Berritsu*, 3 eta 5 urte bitarteko umeentzat, eta *Aitor Ikastolan*, 6 eta 9 urte artekoentzat.


Zertan lagun diezaike umei?

Jolasen bidez, umeek ikaste-txean landutako gaiak erreparatzeko aukera ematen dute bi *Aitorrek*. Interaktiboak dira: umeari hitzez zein idatziz hainbat galdera egiten dizkio ordenagailuak. Erantzuna ez badaki, makinak berak emango dio. Bestalde, laguntza grafikoa ere ematen du ordenagailuak, umeari erantzuna topatzen laguntzeko.

Helburua, baina, ez da soilik ikasgaien erreparazioa egitea; irakastea ere bada. Horretarako hainbat maila dituzte bi *Aitorrek*, umeak, aurreratzen doazela kontura daitezkeen. Bestela oso errepikakorra izango litzateke.

Erabilera erraza izango du.

Erabilerak erraza izan behar du. Guztia hobe daiteke, eta agian errazagoa ere izan zitekeen, baina, hasiera batean gurasoen laguntza jasotzen badute, berehala izango dira gai neska-mutikoak eurak bakarrik moldatzeko eta jolasteko.



MONIKA BELASTEGI

“Eskolalo ikasgaiak erreparatzeko aukera eskaintzen dute Aitor ordenagailuek”

“Urteak daramatzat umeendako jolas hezigarriak egiten. Aitor aurten atera dut merkatura”

“Bi anaia dira: Aitor Berritsu, 3 eta 6 urte artekoentzat, eta Aitor Ikastolan, 6 eta 9 artekoentzat”

BERGARAN BULEGO BERRIA

INMOBILIARIA

BERGARA LEGAZPI
Ibargarai 3. Santikutz 8.
943 76 97 97 943 73 05 25

10 URTEKO ESPERIENTZIA!

BOLU SUKALDEAK

Zure sukaldearen diseinua eta aurrekontua konpromiso barik

Bolu, 22-behea BERGARA
Tel. eta faxa: 943 76 27 02

BANKINTER

%3,5 etik aurrera lehen 6 hilabeteetan

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

*Irekiera komisioa: %1, 35 urte bitartearaino

Matxiategi Elektragintza S.L.

ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. BERGARA. 943 76 19 94.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - mokatak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

Radio Bergara

Etxetresna elektrikoak
Sakelako telefonoak
Lanparak
Opariak

San pedro 25
BERGARA
943 76 19 89



**MUNDUKO
DANTZAK**

Tolerantzia eta arrazakeriaren aurkako gaiak landu dituzte Mariaren Lagundia ikastolako ikasleek ikasturtea hasi zenetik. Eta aurrerantzean ere gai horiei buruzko hausnarketekin jarraituko dute. Beste leku batzuetako kultura eta ohitura ezagutu eta horiek errespetatzen ikasi dute. Landutako gai horiek praktikara ere eraman dituzte, eta hona hemen, joan zen egubakoitzean, ikastolako jolastokian antolatu zuten jaialdiko argazkia: hainbat herrialdetako dantzak egin zituzten jaialdi horretan; majo ibili ziren, bai, ikasle eta irakasleak.



SANTA ZEZILIA OSPATZEN

Musika Eskolako ikasleak kalera irten ziren joan zen egunean, Santa Zezilia musikariaren zaindariaren eguna ospatzera. Arratsaldeko 17:30ean kalejira egin zuten; ondoren, txokolate jana izan zuten Musika Eskolan bertan. Bide batez, zorionak herriko musikari eta musikazale guztioi!

**IBARGYREN
PENTSYAK**

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako
nekazal produktuak



San Pedro 3. BERGARA.
Tf. 943 76 23 79

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62



**Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak**

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Pintura-lanak
orokorrean
•
Pintura industrial
•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...



Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako
altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.

BERGARA. 943 76 58 86

izeder

ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak

943 76 71 05.
Arruriaga 2. BERGARA



TABERNA

Kruz Gallastegi, 1. BERGARA. 943 76 54 69

BERGARARRAK MUNDUAN

MARIAJE VICENTE ETA EMILIO VINUESA

32 ETA 34 URTE / VALENTZIAN ARI DIRA LANEAN

“Mediterraneoko klima eta urte osoko argitasuna eskertzekoak dira”

EDU MENDIBIL

Bikote ezkonberri hau (joan den urriaren 12an ezkondu ziren Bergaran) Valentzian bizi da. Mariajeri Saguntoko Usinor siderurgia enpresan (lehengo Mediterraneoko Labe Garaiak) lan egiteko eskaintza egin zioten duela bost urte, eta hantxe dihardu lanean. Emilio handik urtebetera joan zen. Bere lehengo lanean urtebete eszedentzia eskatu ondoren, master bat egiteari ekin zion. Hura bukatutakoan lana topatu zuen Hamann garraio enpresan eta logistika departamentuan dihardu.

Mariaje eta Emilio kostaldeko Canet d'en Berenguer herrian bizi dira, Valentziatik hamar bat kilometro. Euren hitzetan, “hemengo klima zoragarria da eta urte osoko argitasuna eskertzekoa da. Ziurrenik, gu hona etortzea baino gehiago kostatuko litzaioke valentziar bati Euskal Herrira joatea. Hegoaldetik iparraldera igarotzea gogorragoa gerta daiteke”.

Hango bizi-kalitatearen gainean zera diote: “Etxebizitza erostea Euskal Herrian baino merkeagoa da, baina erosteko ahalmena

ere txikiagoa da. Jendeak eguneroko gauzak arduragabetsun puntu batekin bizitzea deigarria da guretako. Horrek zenbaitetan seriotasun falta eta puntualtasunik eza dakartza”. Valentziarrak definitzeko berba bakarra nahikoa dute: “Zaratatsuak”.

“Bergarara sarritan joan arren, familiaren eta lagunen falta igartzen dugu”

Bergarara sarri etorri arren (bizpahiru hilabete behin-edo), batez ere, familiaren eta lagunen falta igartzen dute. Baita hemengo mendiak, euria... eta janaria ere.

Zaletasunei dagokienez, Emiliok korrika egitea eta igeriketa ditu gustuko. Askotan joaten ei da korrika egitera hondartzara, “Pintxo” euren txakurraren laguntzarekin. Mariajek, aldiz, lorezaintzan ibiltzen da. Gutxika-gutxika etxea lorez betetzen hasi dela dio Emiliok.

MINGAINARITIRAKA



Gustavo Ocampo

GAZTAINA SALTZAILEA

Kolonbiarra da Gustavo, baiña bi urte daroia Euskal Herrian bizitzen. Gasteizen bizi da, eta egunero etortzen da Bergarara gaztaiñak saltzera. Udan, berriz, helatua saltzen dau.

Zelatan kolonbiar bat gaztaiñak saltzen?

Kolonbiatik “akzidentez” etorri nintzen, eta orain gaztaiñak saltzen nabil.

Kolonbian kafia bai, baiña gaztaiñarik badago?

Egixa esan, hona etorri arte ezagutu be ez neban egitten gaztaiñia.

Nungo gaztaiñak saltzen dittuzu?

Leonetik eta Asturiasetik ekartzen dittugu, hemengorik ez dogu erosten.

Egunian zenbat kilo?

Astian zihar 10 bat kilo; astebukaeretan askoz gehiago saltzen dot.

Zein da gaztaiñak ondo erretzeko sekretua?

Poliki-poliki erre eta zaintzen egotia, ez daittezen gehixegi erre, baiña ezta gutxigi be.

Hotzari zela aurre egitten jatzu?

Suan onduan jarritta berotzen naiz; eurixa egitten dabenian pasatzen dot okerrago, aterpe asko ez daukat-eta.

Peñalba parian daukazu. Ez ziñuan loterixarik erosi, ala?

Ez, baiña ez daukat pena haundirik; izan be, nik patuan sinisten dot, eta erosi bihar izango banaban, erosiko neban. Horregatik, konformatzen naiz.

Baiña 200 millioi tokau ezkerok?

Ez nuke gaztaiña gehixago salduko.

Kolonbiar baten ikuspuntutik, zelakuak gara euskaldunok?

Oso jatorrak, oso gustura nago hemen.

Zela definiduko ziñuke zeure burua?

Oso alaixa naiz, batzuk esaten doste gehixegiko alaixa naizela; bizitza motza da, eta ezingo dogu ba, negarrez pasau, ezta?

AINTZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA/ Arkaitz Arana

MENORCA / 2001eko irailean

Lankide batek proposatu zidan piraguaz Menorca-ri itzulia ematea. Bera lehen ere itzuli hori egin-dakoa zen; ni, berriz, ez nintzen piraguaz asko ibilitakoa, baina animatu egin nintzen. Beti-Busti-koekin ikastaro bat egin nuen joan aurretik, eta neure kontura ere ibili nintzen hiruzpalau egunetan entrenatzen.


Zazpi egun egin genituen guztira, baina, azkenean, eguraldi txarra zela-eta, ez genuen itzuli osoa egiterik lortu, 15 bat kilometro geratu ginen.

Mahon herritik atera ginen lau lagun, eta 220 kilometroko itzulia genuen geure aurrean. Eguraldiaren arabera, ordu gehiago edo gutxiago egiten genituen arraunean. Egun baten, adibidez, ordu eta erdi bakarrik egin genuen arraunean; beste baten, berriz, zazpi ordu.

Lo egin eta atseden hartzeko kaletan geratzen ginen; gainera, haraino heltzeko biderik ez zeukaten kalak topatzen saiatzen ginen, lasai-lasai egon ahal izateko. Kanpinak jarri eta hantxe lo egiten genuen. Horregatik, Menorcako herri askorik ere ez genuen ikusi. Erosketaren batzuk egitera besterik ez ginen joaten herrietara.

Oso esperientzia polita izan zen, oporraldietarako oso era ezberdina izan zen-eta. Dena dela, beldur pixka bat ere pasatu nuen, itsaso zakarra zela-eta. Nirekin joan ziren lagunak lasaiago ibili ziren, baina nik, bigarren egunetik aurrera, kendu ere ez nuen egin salbamendu-jaka, badaezpada ere. Mediterraneo itsasoa ere zakar jartzen dela ikusi ahal izan nuen, ez dela horren lasaia ere.

Aurrera begira badaukagu antzerako bidaiia bat egiteko asmoa. Seguruena, itsasoz izan beharrean, ibai luze-zen batera joango gara, Rhinera edo; ikusiko dugu.



“Mahonetik atera, eta 220 kilometroko itzulia genuen gure aurrean”

“Beldur pixka bat ere pasatu nuen, itsaso zakarra zela-eta”

AINTZANE IRIZAR



Kaletan geratzen ziren, eta hantxe jartzen zituzten kanpadendak.

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

JAUNARTZEAK,
EZKONTZAK, BATAIOAK,
KINTOENTZAKO
BAZKARIAK...

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

AKORT

Ipin ezazu zure ARGAZKIA PUZZLE BATEAN

BERRIA!

Izan zaitetz orijinala:
ZURE OPARIAK LATA BARRUAN

Era guztietako
kamisetak eta
kirol-jertseak

Fotokopiak
KOLORETAN

Enpresako OPARIAK
egiteko, imajina
dezakezun guztia:
boligrafoak,
agendak, aterkiak,
ordenagailuendako
alfonbratxo
pertsionalizatuak...

Mugertza 7, BERGARA. Tel.: 943 76 50 39


ELKARRIZKETA

XABIER ZANGITU/UDA FUTBOL TALDEKO KAPITAINA

"Azken jardunaldietan, hasieran izandako zortea faltan izan dugu"

EDU MENDIBIL

Bergarako preferente mailako futbol taldeak UDA taldea izango du bisitari zapatuan Agorrosinen, 15:30ean. Xabier Zangitu 29 urteko osintxuarra dugu aretxabaletarren kapitaina.



OXEL EROSTARBE

Hainbat jardunalditan lehenengoak izan ondoren, azken partiduetan huts egin duzue.

Horrela da, bai. Azken lau partiduetan puntu bakarra eskuratu dugu, Gure Txokoaren kontra, hain zuzen ere. Gainerako hirurak galdu egin ditugu, Oiarzun, Pasajes eta Hondarribia taldeen kontra. Taldea ondo ari da jokatzeko, baina beharbada lehenbiziko jardunaldietan izan genuen zortea faltan dugu orain. **Bederatzi puntuko aldea ateratzen diozue Bergarari. Igarriko al da hori zapatuko partiduan?**

Baietz espero dut. Gure benetako maila azaltzen badugu, hiru puntuak eskuratuko ditugula uste dut. Partidua irabazteko helburuarekin zelairatuko gara, beti bezala.

Zein da UDAREN sekretua?

Joan zen denboraldiko talde bera daukagu, eta entrenatzaileak ondo baino hobeto ezagutzen

gaitu. Ondo osatutako taldea gaila esango nuke. **Hainbat bergarar ari zarete UDAn. Zuentzat motibagarria izango da Agorrosinen jokatzeko...**

Enrique Nieto entrenatzaileaz gain, Jon Sanchez, Andoni Rodriguez eta ni neu gabiltza, eta bai, berezia da guretzat Bergara-

ra etortzea. Hala ere, zelaian gauza horiek berehala ahazten dira. Zapatuko partidua bat gehiago da, guztiak direlako garrantzitsuak. **Non espero duzue egotea liga amaieran?**

Gure lehenbiziko helburua kategoria mantentzea da. Hortik aurrera, zenbat eta gorago egon, hobeto.

FOTOKIROLA



Iker Muruamendiaraz finalerdietan

Iker Muruamendiarazek 22-11 irabazi zion Edorta Zabalarri domekan Bergaran, bigarren mailako lau terdiko txapelketaren barruan. Ikerrek finalerdietako lehen partidua jokatu du Medina mexikarraren aurka astelehenean Tolosan.

ATLETISMOA

Zurro herriko onena Donostiako maratoian

Roberto Zurro izan zen herriko onena domekan Donostian jokaturako maratoian. Zurrok 2 ordu, 38 minutu eta 18 segundoko denbora egin zuen. Bergarako 13 korrikalarik lortu zuten maratoia (42,195 kilometro) amaitzea. Zurroz gain, hauek izan ziren helmugaratu zirenak: Javier Moreno Castelo (2:46:13), Javier Garcia Alberdi (2:59:54), Basilio Aranburu Mujika (3:05:20), Miguel Angel Aranes Usabiaga (3:06:05), Igor Labaien Olasolo (3:07:27), Joxin Garcia Sousa (3:17:43), Joaquin Gonzalez Martinez (3:23:08), Jesus Diaz Roman (3:23:50), Aitor Eraña Arroiabe (3:32:54), Bixente Pagaldai Garitano (3:32:55), Iban Agirrebeña Oteo (3:33:50), Jose Ignacio Mujika Odriozola (3:34:11), Imanol Elkoroberezibar Azkarate (3:55:14) eta Karlos Lasa Alberdi (4:05:00).

LABEGARAIETAKO FUTBITOXAPELKETA

EMAITZAK

A MULTZOA

Agirrebeña jatetxea-Eri	3-13
Mongatxurak-Bar Ugarte	7-5
Torrekua-A Ze Flaxa	5-9

B MULTZOA

Dedo Pafarru-Patxaran Team	7-3
Etengabe-Irubide	1-7
T.H.T.-Txipiron	5-5
Bar Canalejas-Artekale pizzeria	12-7
Vacalouras-Aterpe	3-2
Amoskibar-Bar Bedarreta	2-6

C MULTZOA

Pagomendi-Timofonika	12-0
Argandolas-Errotagain	3-7

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

- 09:30: Amilotx-K. Piperrak. Agirrebeña
 - 10:30: Bici. Igartua-Agirrebeña. Amilotx
 - 11:30: Bar Aterpe-Artekale piz. Mongatxur.
 - 12:30: Mongatxurak-Eri. Artekale pizz.
 - 18:00: Bar Bedarreta-Canalejas. Vacalouras
 - 19:00: Vacalouras-Etengabe. Bar Ugarte
 - 20:00: Bar Ugarte-A Ze Flaxa Etengabe
- DOMEKAN, BARRUAN**
- 09:30: Amoskibar-Txipiron. Errotagain
 - 10:30: Errotagain-Ortzi. Txipiron
 - 16:00: Irubide-T.H.T. Torrekua
 - 17:00: Torrekua-Bar Ganbara. Timofonika
 - 18:00: Timofonika-Bayer. Artusamak
 - 19:00: Artusamak-Dedo Pafarru. Patxaran
 - 20:00: Patxaran-Argandolas. Dedo Pafarru

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. A Ze Flaxa	24	8
2. Mongatxurak	16	7
3. Agirrebeña jatetxea	16	9
4. Bar Ugarte	13	8
5. Eri	10	8
6. Kanpazar Harrobia	9	8
7. Torrekua	9	9
8. Komando Piperrak	8	8
9. Amilotx	4	7
10. Biciprecisión Igartua	4	7
11. Bar Ganbara	1	7

B MULTZOA

	P	J
1. Bar Bedarreta	27	9
2. Bar Canalejas	20	9
3. Aterpe	18	9
4. Irubide jatetxea	14	8
5. Vacalouras	14	9
6. Amoskibar	10	9
7. Artekale pizzeria	9	9
8. THT	8	9
9. Txipiron	2	8
10. Etengabe	0	9

C MULTZOA

	P	J
1. Errotagain	24	8
2. Artusamak	16	7
3. Dedo Pafarru	16	8
4. Bayer	12	8
5. Pagomendi	12	7
6. Argandolas	10	8
7. Ortzi	7	8
8. Patxaran	3	8
9. Timofonika Team	3	8
10. Bildurbarek	0	0

ARGI IBILI!

DATORREN ASTEAN EZ DA JARDUNALDIRIK IZANGO

Abenduaren 6ko zubia dela eta, datorren astebukaeraren ez da futbito txapelketako jardunaldirik izango. Beraz, Labegarrietan ari diren talde guztiak atsedena izango dute. Bestalde, antolaketa batzordeak lau partiduko zigorra ezarri dio Bar Bedarreta taldeko Imanol Carmona jokalaritari.

GORA ETA BEHERA



MONGATXURRAK ETA ERI

Mongatxurak taldeak 7-5 irabazi zion Bar Ugarteri zapatu eguerdian. Mongatxurak A multzoko bigarren postuan da dagoeneko. Multzo berean, Eri taldeak uste baino errazago irabazi zion Agirrebeña jatetxeari (13-3).



TIMOFONIKA ETA ETENGABE

Timofonika taldeak gol zaparrada jaso zuen Pagomendiren kontra. 12-0 galdu zuten Timofonikakoek. Zaila da golik ez egitea. Etengabek ere irudi eskasa azaldu zuen Irubideren aurka (1-7). B multzoko azkena da Etengabe.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Aretxabaleta
Preferente maila. Zapatua. 15:30. Agorrosin
Bergara-Tolosa
Ohorezko maila. Kadeteak. Zapatua. 17:15. Ipintza.
Bergara-Aurrera Ondarroa
Bigarren mailako kadeteak. Domeka. 10:30. Ipintza.
Bergara-Eibartarrak
Lehen mailako gazteak. Domeka. 12:00. Ipintza.
SASKIBALOA
Bergara-Irun
Senior mutilak. Zapatua. 16:00. Kiroldegia.
Bergara-Easo B
Gazte mutilak. Domeka. 12:15. Mariaren Lagundia.

ESKUBALOA

Bergara-BKL Beasain
Gazte mutilak. Domeka. 12:15. Kiroldegia.
PILOTA
Gabonetako txapelketa
Aimar Agirre-Julen Inurrieta (Alebin A)
Jon Pérez-Unai Orgaz (Alebin A)
Gipuzkoako txapelketa
Bergara II-Elgoibar I (Infantilak)
Bergara I-Elgoibar II (Infantilak)
Bergara-Intxaurren (Gazteak)
Bergara-Oiartzun (Senior banaka)
Egubakoitzean, hilak 30, Udal Pilotalekuan, 19:00etan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Beti Ona 2 Bergara 1 (Preferente maila)
Bergara 1 Tolosaldea 4 (Lehen erregionala)
Amaiak Bat 2 Bergara 1 (Neskak)
Bergara 5 Santo Tomas Lizeoa (Ohorez. gazteak)
Aurrera Ondarroa 3 Bergara 0 (1. mail. gazteak)
Hernani 4 Bergara 0 (Ohorezko m. kadeteak)
Urki 2 Bergara 1 (Bigarren mailako kadeteak)
Bergara 9 Urnieta 2 (Infantilak)

ESKUBALOA

Bergara 22 Leizaran 21 (Senior mutilak)
Bergara 19 Aloña Mendi 13 (Kadete mutilak)
SASKIBALOA
Aldapeta 89 Bergara 70 (Senior mutilak)
Bergara 49 Aloña Mendi 46 (Gazte mutilak)

PILOTA

Antzuola 18 Bergara II 2 (Infantilak)
Oñati 10 Bergara I 18 (Infantilak)
San Esteban 4 Bergara 22 (Kadeteak)
Bergara 22 Ikasberri 19 (2. mailako seniorrak)



Ez galdu aukera handi hau

HIL BUKAERA
ARTE BAKARRIK



Opel Astra

1.760.000 pezetatik bakarrik hasita.*

EKIPAMENDUA

- Motorra 1.6 84 ZP.
- ABS balaztatze sistema.
- Aurreko eta alboetako aire-poltsak.
- Aurrealdeko buru-euskarri aktiboak.
- Pedal erretraktiak.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Bolantea altueran eta sakoneran erregulagarria.
- Lapurreten kontrako itxitura elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua. 12 urteko bermea korrosioagatik zulaketa gertatzen den kasuetan.


Eta diesela DTi 16V 2.046.000 pezetatik hasita.*

Opel Vectra

2.300.000 pezetatik bakarrik hasita.*

EKIPAMENDUA

- Motorra 1.6 16v 100 ZP.
- ABS balaztatze sistema.
- Aurreko eta alboetako aire-poltsak.
- Aurrealdeko buru-euskarri aktiboak.
- Goi-fidelitateko audio katea.
- Aurrealdeko kristal-igogailu elektrikoak.
- Kanpoko atzera-ispilu elektriko eta termikoak.
- Itxitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Bolantea altueran erregulagarria.
- Lapurreten kontrako itxitura elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua. 10 urteko bermea korrosioagatik zulaketa gertatzen den kasuetan.
- Aire girotua.



Eta diesela 2.0 DTi 16V 2.675.000 pezetatik hasita.*

www.opel.es

OPEL CREDIT

123

1, 2, 3 aukerak: Beti auto berria izateko modurik errazena.

*10.577,81€ Astra Club 3 ate 1.6 8v 84zp. 12.296,71€ Astra 3 ate 1.7 DTi 75zp. 13.823,28€ Vectra Comfort 1.6 16v 100zp. 16.077,07€ Vectra Comfort 2.0 DTi 16v 100zp. Fabrikatzaileak gomendatutako salneurriak Penintsulan eta Balear Uharteetan. Barne hartzen du: garraioa, BEZ, matrikulazio zerga, sustapen deskontua eta preber plana berundun gasolinazko autoetan (gasolinazko motorretan) edo preber plana dieslezko motorretan. Baliozko eskaintza hil bukaera arte. Matrikulazio datuak DGTX emanak (2001 eko urtarriraila).

OPEL

gasolinazkoen salmentan LEHENAK

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA
Zerbitzu Ofiziala

TAKOLO AUTOAK

Araba Ertobidea. Tfnoak. 943 77 30 10. ARRASATE

ELKARRIZKETA

DAVID AZURTZA/BERGARAKO ORFEOIAREN ZUZENDARIA

“Horra Mari Gabon ipuin musikal nahiko berezia da, gutxi daudelako”

MONIKA BELASTEGI

Lausardi Koru Sinfonikoak kontzertua antolatu du domekarako. Udal Pilotalekuan izango da, 18:00etan. Han David Azurtzak sortutako *Horra Mari Gabon* ipuin musikala eskainiko dute ibarreko zazpi ume abesbatzek.

Zer da ‘Horra Mari’?

Gabon ipuin nahiko berezia. Berezia, koruen erreperatorioan Gabon ipuin musikal oso gutxi daudelako. Euskaraz, behintzat, nik ez dut ikusi. Horregatik, planteamendu bezala nahiko bitxia da.

Horra Mari Domingi kantuan oinarritutako ipuin bat da. Gabon kanta horretan istorio bat izan daitekeenaren aipamenak daude: “neska bat, kendu gona hori...”. Baina istorioa osatu barik dago. Hori horrela, Jose Mari Iturralde idazleak istorio zati horiek hartu eta ipuin bat asmatu du. **Idea eta proiektua, baina, zureak dira, baita musika ere.**

Bai. Idea nirea izan zen; Jose Mari Iturralderekin berba egin nuen, eta ipuina moldatu. Obra zatika doa, hainbat eszena dira. Eta bakoitzak bere kantua dauka. Guztira, hamabi kantu dira, bata bestearen atzetik, eta guztiek narrazaile baten gidoiaren ildo jarraitzen dute.

Umeen koroek kantatzeko lana da.

Bai, protagonista nagusiak umeak dira.


Horrelako lan gutxi dagoela esan duzu. Horrek animatu zaitu obra egitera?

Bai, jakina. Umeen koroak ezagutzen ditut, eta badakit zeintzuk diren haien beharrak. Gainera, badakit hogeitun minutuko obra bat abestea baino, hogeitun minutu horietan zatikako obra abestea errazago egiten zaiela. **Gabon ipuina izateak ez du mugatuko Eguberrietan soilik abestera?**

Ez. Ipuin osoak badu Eguberri giroa, baina kantu solteak hartuz gero, ez. Hamabi kantu horietako batzuk udaberriaren, esaterako, abes daitezke. Hori oso garrantzitsua da, batez ere, umeek lan handia egiten dute eta obra ikasten; baina lan probetxugarria da, maiatzean ere kantatzeko aukera izango dutelako.

Bergarako kontzertua euskaraz izango da. Gaztelaniazko bertsioa ere badago.

Proiektu hau editatzeak kostu dezente dauka. Editorial baten esaten badiezu gaztelaniaz ere interpreta daitekeela ipuin osoa, irteera samurragoa du. Hori horrela, ipuina gaztelaniaz ere eskaintzeko prestatuta dago. Gastua eta esfortzua amortizatzen



MONIKA BELASTEGI

“Ume koroendako egin dut Horra Mari. Umeen koroak eta beharrak ezagutzen ditudalako”

modua ere bada. Bestalde, obra hemen bakarrik geratzea pena da. Gainera, nahiz eta euskal Gabon kanta baten oinarrituta egon, pertsonaia ez da eskusiboki hemengo. Asmoa da irekiagoa izatea eta mugarik ez egotea.

Euskal Herritik kanpo baduzue kontzerturik?

Bai, Eguberri hauetan hainbat tokitan eskainiko dugu *Horra Mari*: Burgosen, Kuban eta Argentinan, besteak beste.

Gainera, emanaldia egiten dugun tokiko umeen abesbatzek abesten dute.

Lehen, editatzea aipatu duzu.

Bai, partitura editatu da eta CDa ere bai. CD horretan *Horra Mari* euskaraz, gaztelaniaz eta playbacken jasota dago, hau da,

“Euskaraz eta gaztelaniaz egin dut. Obra hemen bakarrik geratzea pena da”

musikarekin bakarrik.


Zelakoa izango da Bergarako emanaldia?

Bi parte izango ditu: lehenengo kontzertu didaktiko moduan dago planteatua: Lausardik eta Donostiako Conjunto Barrocok hartuko dugu parte. Eguberriko kantata bat eskainiko dugu, baina barrokoa. Kantuez gain, hitzezko azalpenak ere egongo dira. Bigarren atalean *Horra Mari* eskainiko dugu, eta 180 umek hartuko dute parte: Arrasateko Goikobalu Txikik eta Gaztek, Bergarako Mariaren Lagundiko abesbatzak, Musika Eskolako Haur abesbatzak, Bergarako Orfeo Gazteak, eta Oñatiko Txantxiku ikastolako eta Musika Eskolako abesbatzek.

Euskaldunak, Humboldt alemanaren ikuspegitik

MONIKA BELASTEGI

Humboldt jakintsu alemana gogoratzeko, erakusketa izango da Udaletxean. Batetik, aditu alemana ezagutzeko aukera izango da; bestetik, hark euskaldunen gainean zein iritzi zuen jakin ahal izango da.



Martitzenean hasi eta abenduaren 16ra arte, Humboldt aditu alemana gogoratzeko, erakusketak egongo da Udaletxeko sarreran. Humboldt-ek 1799an zeharkatu zuen Euskal Herria lehen aldiz, Madrilera bidean. 1801ean bigarren bidaia egin zuen, eta bidaia horretan hartutako oharrekin *Euskaldunak* liburua egin zuen. Liburuan euskaldunak deskribatzen ditu, haien herria eta herriak, ohiturak, jarduera ekonomikoak eta antolaketa politikoak, janzkerak, jokoak, dantzak... eta hizkuntza.

Berrehun urte geroago, Donostiako Koldo Mitxelena Kultureguneak eta Ormaiztegi Zumalakarregi Museoa bat egin dute Humboldt jakintsu alemanaren lan hori erakusteko. Erakusketak helburu bikoitza du: alde batetik, gaurko euskaldunek gure asabenez bizimoduaz interesatu zen Humboldt zientifikaren liburuarekiko interesa piz-

tea; beste aldetik, Humboldt-ek bezala euskaldunenganako jakinmina eta haien lurraldean gozamen sentitzera gonbidatzen ditu bisitan datozkigun kanpotarrak.

Bi euskarri izango ditu erakusketak: paperean Humboldt-en bizitzaren kronologia aurkituko dugu; bestetik, programa informatikoa, ikerlari alemanak Euskal Herrian egindako ibilbidetaren mapa elkarreragilea jasotzen duena. Mapa horrek hamabi herri (tartean, Bergara) jasotzen ditu; baita hamabi gai ere, euskara, foruak eta emakumeak, besteak beste.

KONTZERTUA ATZERATUTA

Abenduaren 1erako iragarrita zegoen Ainara Moreno eta Roberto Casadoren harpa eta flauta kontzertua abenduaren 6ra atzeratu dute.



Jone Telleriaren margoak kultura etxean

Jone Telleriaren pintura lanak ikusgai daude kultura etxean. Erakusketak bi atal ditu, baina biek ideia bakar baten dute oinarria, Telleriaren esanetan: “Mugak. Gizakiak inguruneari jartzen dizkion mugak eta inguruneak gizakiari jartzen dizkionak. Beti ere, baina, muga horien barruan ate irekiak utzi”. Erakusketaren atal bat 16 margolanek osatzen dute; bigarrena argiarekin sortutako lau instalaziok. Erakusketa abenduaren 2ra arte egongo da zabalik: astelehenetik egubakoitzera (18:00-21:00) eta zapatu eta jaiegunetan (12:00-12:00 eta 18:00-20:00).

E, TXO!

GAZTETXEKO KONTZERTUA BIHAR, ZAPATUA

Bihar, zapatua, gaueko 22:30ean izango da kontzertua Kartzela Zaharrean, Gaztetxeak antolatuta. Bi talde arituko dira hantxe, Bilbokoak biak: Zumo negro eta Evil Joy taldeak, hain zuzen ere.

ASTINDU FANZINEAREN BIGARREN ALEA KALEAN

Gaur, egubakoitza, kaleratu dute Gazte Asanbladakoek *Astindu* fanzinearen bigarren zenbakia. Urriaren 26an argitaratu zuten lehenda-biziko alea, eta bien bitartean, ale berezi bat ere kaleratu zuten; hementxe, sail honetan, eman genizuen gainera, horren berri.

Azken ale honetan, hainbat gai landu dituzte Gazte Asanbladakoek, besteak beste, cannabisa-ri buruzkoak, neoliberalismoari buruzkoak... Asanbladaren hitza ere batu nahi izan dute *Astindu*-n. Ohiko tabernetan eskuratu ahal izango duzue fanzinea, eta itsulapiko batzuk daude, nahi duenak borondatezko ekarpena egin dezan. Hirugarren alea hilabete barru kaleratuko dute.

KUADRILLATEGIREKIN BUZTIN TAILERRA

Bihar, zapatuero bezala, hitzordua daukazue Kuadrillategi egitasmoko lagunok. Buztin tailerra antolatu dute biharko. Zabalotegin, Udal Euskaltegiaren egoitzan duzue hitzordua, 15:30ean. Ez daukazue ezer eraman beharrik, ideiak, besterik ez. Eskulanetarako eta arratsaldea lagunartean pasatzeko aukera aproposa, inolako zalantzarik gabe.

GUREGAIK/ 'BERGARA EZAGUTZEN' LEHIAKETA

Jolastuz, geure herria ezagutzeko aukera

AINZANE IRIZAR

Horixe da "Bergara ezagutzen" lehiaketak eskaintzen diguna, jolas baten bitartez, Bergara hobeto ezagutzea, alegia. Datorren astelehenean, abenduak 3, zabalik dago izena emateko aukera.

Hamalau eta hemezortzi urte bitarteko edonork parte har dezake Jardun euskara elkarteak antolatzen duen lehiaketa honetan.

Urtero moduan, taldeka antolatutako lehiaketa da; parte hartu nahi duten taldeek 10-15 lagun ez osatutakoak izan behar dute, ahal izanez gero, hobe hamabost lagun ez osatutako taldeak baldin badira.

OTSAILEAN HASIKO DA LEHIAKETA

Otsailaren 1ean, egubakoitza, hasiko da lehiaketa, eta egubakoitzero jokatuko dituzte saioak, 19:30ean Kartzela Zaharrean. Saio bakoitzean bi talde arituko dira lehiari, eta hainbat galdera eta proba gaitu beharko dituzte.

Izena emateko, Jardunera joan beharko duzue (gogora ezazue orain Errotalde jauregian daudela), edo telefono hauetara deitu, abenduaren 19a baino lehen: 943 76 08 19 eta 943 76 36 61.

Talde irabazleak Nafarroan astebukaera bat pasatzeko aukera izango du, naturarekin lotutako kirolak praktikatzeko. Bigarren eta hirugarren sailkatuek, berriz, afari ederra irabaziko dute.



Irabazleak Nafarroan astebukaera bat pasatzeko aukera izango dute.

LOTSABARIK/ Aitor Ugarte

"Neska kontuetarako oso lotsatia naiz"

AINZANE IRIZAR

Lagunekin egotea, musika eta saskibaloia ditu gustuko, baina bere kirol taldea Reala dela esan digu. Seduzitzeko orduan lotsatia dela dio, baina elkarriketarako segituan esan zigun, "bai, bai, joango naiz".

• Txikitan, zer izan nahi zenuen?

Futbol jokalaria; beti futboleko jolasten aritzen ginen, eta denok nahi genuen futbol jokalaria izatea.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zeure burua?

Ezkondua, seme-alabekin eta lan on batekin; hori espero dut.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?

Ikasteko eta formala izateko; kalera irtetzen naizenean, formal ibiltzeko eta etxera esandako orduan joateko esaten didate.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

"Pelota" egitea; harrikoa eginez, aspiradorea pasatuz eta horrelakoak eginez.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunei, neskei eta osasunari.

• Zure bertute bat?

Mutil jatorra naizela esaten didate.

• Eta hutsune bat?

Pazientzia gutxi daukadala;

"prontoa" daukat, azkar haserretzen naiz.

• Zerk amorratzen zaitu?

Hitz egin eta inork kasurik ez egiteak, *ignoratuta* sentitzeak.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Begiak.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Aurpegiari; baina, gero izaerari.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Ez dut ezer egiten; gainera, neska kontu horietarako oso lotsatia naiz.

• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Eduki badauzkat, baina hori ja ez dut erantzungo.



ADINA: 16 urte • IKASKETAK: Batxillergoa • ZALETASUNAK: Saskibaloia eta musika • LIBURU BAT: *Irakasle alu bat*, Xabier Mendigurenena • FILM BAT: *Braveheart* • MUSIKA TALDEA: S.A. • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA/ Oihan Vega



ZAHARREN ETXETIK



Eskulan ikastaroan ari den emakume talde bat, astelehenean San Joxepen ateratako argazkian.



Korukoak Santa Zezilia ospatzen

Joan den eguenean, azaroaren 22an, San Joxepe elkarteko abesbatzako kideek Santa Zezilia musikarien patrioiaren eguna ospatu zuten. Guztira, 39 lagun batu ziren San Joxepeko egoitzan egindako bazkarian. Umore ona izan zen nagusi, eta primeran bazkaldu ostean, kantuan hasi ziren, zelan ez. Gaur egun, 44 lagunek dihardute San Joxepeko abesbatzan.

Hemeretzi lagun ari dira San Joxepeko eskulan ikastaroan

EDU MENDIBIL

Herriko hemeretzi emakumek dihardute San Joxepe erretiratuaren elkartearen antolatzen den eskulan ikastaroan. Astelehenero batzen dira, eta Ines Elortza irakaslearen esanetan, "lana egiteaz gain, eskulanetan jardutea terapia moduko bat da ikasleendako".

Ines Elortza legazpiarrak esperientzia zabala dauka erretiratuei eskulan ikastaroak emateko orduan. San Joxepen jarduteaz gain, Legazpi, Olaberria eta Beasaingo erretiratuaren elkarteetan dabil eskolak ematen gaur egun. Gipuzkoako beste hainbat tokitan ere jardun izan du irakasle lanetan. Inesek 15 bat urte daramatza Bergarako egoitzan eskulan ikastaroak ematen.

Aurten, esan bezala, hemeretzi emakume ari dira. Urrian hasi zuten ikasturte berria eta, ekaina bitartean, astelehenero batu dira, 17:00etatik 20:00etara,

hain zuzen ere. Hilabete bakoitzeko 1.400 pezetako kuota ordaintzen dute.

Ines Elortzak azaldukoaren arabera, "era guztietako lanak egiten ditugu: margolanak, gurutze-puntua, bordatuak edo bainiak. Bordatuen barruan, berriz, *hardanger* (bordatu norvegiarra)

Gizonik ez da animatzen

Badirudi eskulanak emakumeen kontuak direla, San Joxepen, behinik behin. Ikastaroan ez dago gizona. Denak emakumeak dira. Antza denez, oso zaila da gizonak ikastarora erakartzea. Makramea, zumea edo poliestirenoa lantzeko ikastaro bereziak antolatu izan direnean ere, oso gutxi hartu dute parte. Gauzak aldatzea nekeza dirudi.

edo "antzinako bordatu mallorcarra" delakoa. Era berean, *fri-volite* izeneko parpaila bereziak ere lantzen ditugu. Azken baten, eskulanekin zerikusia duen guztia egiten dugu".

Eskulan taldea nahiko finkatuta dago eta urtetik urtera ez da aldaketa handirik izaten. Aurtengorako hiru izan dira hasiberriak. Irakaslearen hitzetan, "esperientziak erakusten du batzuek erraztasun handiagoa dutela eskulanetarako, baina guztiek lortzen dute lan onak egitea. Ahalegintzea besterik ez da behar".

URTEAN HIRU ERAKUSKETA

Ikastaroan egiten dituzten lanak, logikoa denez, egileendako euren dako izaten dira. Era berean, urtean hiruzpalau erakusketa egiten dituzte, euren lana jendaurrean azaltzeko.

Ines Elortza oso gustura dago ikasleekin: "Primeran konpontzen gara elkarrekin. Lana egiteaz gain, ondo pasatzea dugu helburu, eta eskulanak egitea terapia moduko bat da".

ZAHARREN AHOTIK

Basili Garai

ERRETIRATUA

Agorrosingo igerilekuetako arropazaindegian egin zuen lan, igerilekuak ireki zituztenetik 1985ean erretiratu zen arte. Egunero hurbiltzen da San Joxepera.



Zer egiten duzu San Joxepen egunero?

Arratsaldero etortzen naiz, koadrilakoekin karta jokoan egitera. Lagun artean primeran pasatzen dut. Bestalde, astelehenero eskulan ikastaroa izaten dugu, eta han ere gustura nabil. Beti dago gauza berriak ikasteko aukera.

Bestela, etxean egoten naiz, familiakoekin. Etxeko lanak egiten jarraitzen dut oraindik, 81 urte izan arren.

Urtetan egon zinen igerilekuetan lanean. Gogorra egin zitzaizun erretiratzea?

Agorrosingo igerilekuak

egin zituztenean, ni izan nintzen han lanean hasitako lehena. Arropazaindegian jardun nuen. Oker ez banaiz, 1985eko uztailearen 14an erretiratu nintzen, eta hasieran, nahiko gogorra egin zitzaidan, bai. Baina pozik nago. Bihotzetik operatuta nago eta osasunak laguntzen duen bitartean...

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R. S. I. 209374 - 55

BERGARA

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12
BERGARA
943 76 03 57

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behe. Bergara
943 76 55 00

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zein bi kaletan daude XVI. mendeko atari hauek?

BERGARAKO ZUHAITZAK

Haltza

Alnus glutinosa

MAITANE ARIZABALETA

Bai ibaiertzetan bai leku urtsuetan hazten den zuhaitz hostogalkorra. Azala arre iluna eta zartatua du eta enborra zuzena. Hosto bakun eta txandakatuak ditu, ertzak bihurtuak eta muturra kamutsa. Urtarrietik maiatzera bitartean loratzen da eta fruituak, egurtsuak, udaren azken aldera heltzen dira.

Normalean, beste zuhaitz (sahatsa, zumarra, makala...), zuhaixka eta belarrekin lotuta joaten da eta erribera basoa osatzen du, zeinek ibaiertzak uraren erosioaren aurka babesten ditu.

Askotariko erabilerak dituen zuhaitza dugu haltza. Alde batetik, garrantzi ekologiko handia du, atmosferako nitrogeinoa finkatuz, erraz kolonizatzen ditu eta lurzoru pobreak. Bestalde, oso egur biguna izan arren, oso iraunkorra da uretan, eta lehen, zubiak egiteko erabiltzen zen. Baina batzuek diotenez, maiatzeko ilberrian moztuz gero, oso egur gogorra da eta, esaterako, aitzurren kirtenak egiteko erabili izan da. Azkenik, azalak tanino ugari ditu eta lehorgarri gisa eta larruak ontzeko erabiltzen da.

“Oso egur biguna izan arren, uretan iraunkorra da; zubiak egiteko erabiltzen zen”



EDU MENDIBIL

GALDEDEBALDE

- | | | |
|--|---|---|
| <p>1.
Nola dute izena Martin Iturrikastillo bergararraren bi ordenagailuek?</p> <p>A/ Aitor Ikastolan eta Aitor Berritsu.
B/ Aitor Eskolan eta Aitor Berritsu.
C/ Aitor Ikastolan eta Aitor Mendingo.</p> | <p>2.
Zein urtetan zeharkatu zuen lehen aldiz Euskal Herria Humboldt aditu alemanak?</p> <p>A/ 1799. urtean.
B/ 1801. urtean.
C/ 1806. urtean.</p> | <p>3.
Aretxabaletako preferente mailako futbol taldeak entrenatzaile bergararra dauka. Zein?</p> <p>A/ Juanina Garai.
B/ Gorka Zelaia.
C/ Enrique Nieto.</p> |
|--|---|---|



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

EIDER EGAÑA rentzat izan da 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Eiderri! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Xabier Munibe Peñaflo-**ridako kontea. “El borracho burlado”. / Galde debalde: 1-A, 2-C, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Delfin otarrainskak

32-48ko kaja (2 zenbakia), 800 gr.

11,57 €

1.925 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Agirrebeña
JATE TXEA

Ibarra kalea 2 • Bergara • Tf. 943 76 20 38

SANTOS

TIEN 21

Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29



BERGARA
Iker Arnaiz
30ean 8 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Leire Igarza
2an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak eta lagunak.



BERGARA
Uxue Murgiondo
4an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak eta lagunak.



BERGARA
Ibai Sanz
1ean 2 urte.
Urte askotarako!
Irati eta gurasoak.



BERGARA
Maialen Zangitu
4an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Mariano Losada
30ean 77 urte. Urte askotarako! Aitzol, Manex eta familiakoak.



BERGARA
Jabier Lauzirika
2an 44 urte.
Urte askotarako!
Alazne eta Oihana.



BERGARA
Maite Fernandez
30ean 14 urte.
Urte askotarako!
Mutuil berezi bat eta...



BERGARA
Nagore Manso
30ean 14 urte. Zorionak!
Lagunak, familiakoak eta Epi eta Blas.



BERGARA
Iker Murillo
2an 15 urte.
Urte askotarako!
Neska berezi bat eta...



BERGARA
Nerea Etxezarreta
6an 11 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta Andoni.



BERGARA
Iñigo Astiazaran
2an 5 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Alex.



BERGARA
Naiara De Marcos
1ean 14 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Nerea Alberdi
6an 14 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Xabier Diaz
30ean 5 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Jon Zangitu
30ean 10 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak eta Ane.



BERGARA
Aritz Arrillaga
4an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Ainara Uribesalgo
30ean 19 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.

Adi!

Hurrengo zenbakian,
abenduaren 5etik 13ra
bitartekoen zorion agurrak
argitaratuko ditugu.
Argazkiak, urtebetetze
eguna baino bi aste
lehenago ekartzea
komeni da.

BABESLEA



argazkilariak

GABONETAKO OPARI ONENAK!

- Reflex kamerak
- Tripodeak
- Compact kamerak
- Kamera digitalak
- Kamera-zorroak

Barrenkalea 35
Tel. eta faxa:
943 76 58 05

Zorionak, antzuolarrok!

Antzuolan zuen zorion agurretako argazkiak* eta datuak emateko liburutegira jo dezakezue:
astelehenero, 17:00etatik 18:00etara.

MUSU-TRUK!

Zorionak, elgetarrok!

Elgetan zuen zorion agurretako argazkiak* eta datuak emateko Erosle-Baltxungora jo dezakezue:
zapaturo, 09:00etatik 13:00etara.

MUSU-TRUK!

ALBAITARIAK

- ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19
ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13
ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albitari ofiziala) 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13
IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

- LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

- IRIGOYEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

- AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23
ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1, behe. 943 76 02 46
ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95
BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77
GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88
GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54
IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65
LASKURAIN HORTZ KLINIKA Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57
TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

ERREHABILITAZIO FISIKOA

- LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

- ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71
BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

- GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

GINEKOLOGOA

- SERRANO Jose Ramon** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

- AZPEITIA Irupe** Fraiskozuri, 4. 943 76 73 43
BELASTEGI Mariasun Agorrosingo igerilekuak. 943 76 02 03
CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78
ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

- ALTUBE Edurne** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84
AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

- GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ezk. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

- JOKABIDEAREN PSIKOLOGIAKO KABINETEA** (Azterketa psikologikoa). 943 76 59 39
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80
URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13
ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 30a / 92. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Abenduaren 14an bukatuko dituzte Olaran etxeako lanak Lantegi Eskolakoek

AINTZANE IRIZAR

Urtebete baino gehiago da Olaran etxea birgaitzeko lanak hasi zituztela. Arrasateko Lantegi Eskolako ikasleak aritu dira denbora guzti honetan Olaran birgaitzen, eta abenduaren 14an bukatuko dute euren lanarekin, ikasturte amaierarekin batera.

Behin Lantegi Eskolakoek euren lanarekin amaitzen dutenean, azken ukituak ematea besterik ez zaio faltako Olaran etxeari. Orduan, inauguratzeko moduan egongo da; otsailaren 5ean izango da hori, egun horretarako jarri dute inaugurazio eguna.

Hiru solairu dauzka Olaran etxeak. Lehendabiziko solairua Udalararen esku geratuko da, baina oraindik erabakitzeke daukate zertarako erabiliko duten. Gainerako solairuak, berriz, Deba-goieneko Mankomunitatearen esku geratuko dira.

ENPRESA BERRIEN EGOITZA

Horixe izango da Olaran etxea hilabete gutxi barru. Mankomunitateak enpresa ekimenean zentro bat kudeatzen du orain dela lau bat urtetik. Euren helburua, enpresa berriei edo sortzera doazenei, nolabait, laguntzea da. Horretarako, beharrezko dituzten lokalak ematen dizkie eta tasa baxuak kobratu. Zerbitzu enpresak edo enpresa industrialak izan daitezke Mankomunitatearen laguntza jasotzen duten enpre-



Behin Lantegi Eskolakoek euren lana bukatuta, azken ukituak besterik ez zaizkio faltako Olaran etxeari.

Datorren otsailaren 5ean egingo dute Olaran etxearren inaugurazio ekitaldia

sak. Antzuolako kasuan, zerbitzu enpresendako 11 bulego egongo dira Olaranen. Enpresa ekimenean zentroko arduradunen esanetan,

Mankomunitateak enpresa ekimene berriak dituztenei lokalak eskainiko - dizkie hantxe

datorren udaberrian bulego abian egotea espero dute. Horretarako, baina, eskaera eta proiektuak aurkeztu ahal izateko deial-

Arrasateko Lantegi Eskolako berrogei ikasle aritu dira Olaran etxea birgaitzen

dia egingo dute. Aurkezten direnen artean, beraz, 11 enpresek izango dute Olaranen egoitza izateko aukera.

IKASLEAK LANGILE

Olaran etxea Udalararena zen; duela hamar urte baino gehiago, erai-kin horretan Kultura Etxea egiteko asmoa zuen Udalak, eta asmo hori baloratzeko proiektu bat ere egin zuten. Handik gutxira, baina, Guraso Elkartearen eraikina Udalararen esku geratu zen, eta azken hau Gizarte Etxea egiteko aukera hobe zela ikusi zuten. Horrela, Olaranerako proiektu berria egin zuten. Mankomunitateari aurkeztu zioten proiektua, Lantegi Eskolakoek egin zezaten. Mankomunitateak proiektua aztertu eta onartu egin zuten.

Horrela, izazko irailean hasi ziren Lantegi Eskolako ikasleak lanean. Zurgintza, elektrizitate eta igeltserotzako ikasketak egin dituzte Lantegi Eskolan. Lehendabiziko sei hilabeteetan eskolan bertan egiten dituzte ikasketak; gainerako 18 hilabeteak izan dituzte Olarango lanak egiteko. 40 ikasle aritu dira, guztira. Eraikinaren teilatua, fatxada eta egitura birgaitzeaz beste enpresa bat arduratu zen; gainerakoa ikasleek konpondu dute.


Lantegi Eskolaren helburua da langabezia dagoen jendeari lanbide bat irakastea. Normalean, ikasketa bariko gazteak izaten dira, bestelako ikasketetan ondo aritu ez direnak. Jende horri lanbide jakin bat irakatsi, eta etorkizunari begira, lanpostu bat lortzeko bidea irekitzea da lantegi eskolen betebeharra. INEMek eta Mankomunitateak finantzatzen dute eskola hori.

AITZ-GARBI



Pintxoak eta kazuelatxoak. Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51 ANTZUOLA



MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren, 1. ANTZUOLA Tf. 943 76 64 34

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA/LARRIALDIAK

DYA	943 78 71 57
Gurutze Gornia	943 76 55 76
Medikua	943 76 62 23
Praktikantea	943 76 63 80
Udaltzaingoa	943 76 62 46
Ertzaintza	943 76 53 40

UDALA

Udaletxea	943 76 62 46
Liburutegia	943 76 60 65

BESTELAKOAK

Idolaz	943 78 60 12
Herri ikastetxea	943 76 62 68
Erretiratuen elkarte	943 76 62 71
Abadetxea	943 76 64 16
Anelkar (Kontxi)	943 78 70 65
Taxiak:	
Antonio Fernández	669 15 65 40
Jesus M. Fernández	607 31 85 60

MEZAK

ANTZUOLAKO PARROKIA

Lanegun eta zapatuetan: 19:30
Domeka eta jaiegunetan: 09:00, 11:30

UZARRAGAKO PARROKIA

Domeka eta jaiegunetan: 10:00

OHARRAK

HERRIKO PILOTA TXAPELKETA

Txapelketako lehen fasea bukatuta, bihar, zapatua, goizeko 10:30ean jokatuko dituzte bigarren mailako finalerdiak honako bikoteek: Rodríguez-Aranburu bikoteak San Sebastián eta Iparragirre izango ditu aurrez aurre. Bigarren finalerdian, berriz, Seguro-la-Biteri eta Aranguren-Larrea lehiatuko dira. Lehen mailan, berriz, finala jokatzeko besterik ez da geratzen, abenduaren 15ean: Aranburu eta Lizarralde Arbulu eta Mendizabalen aurka arituko dira.

ZORION AGURRAK

Gogora ezazue *Berrigarren* zuen lagun edo senitartekoak zoriontzeko aukera daukazuela. Horretarako, gainera, ez duzue Bergaraino etorri beharrik; Antzuolako liburutegira (Eguzki auzoan) eraman ditzakezue argazkiak, astelehen arratsaldetan, 17:00etatik 20:00etara.

BASERRIZBASERRI/ Etxeandi edo Galarditorre



DESAGERTUTAKO BASERRIA XX. mende hasieran desagertu zen Etxeandi, adituen arabera, Pizkunde Garaiko etxe dotorea. Gaur egun konpontzen ari diren Olanan jauregia dagoen tokian zegoen baserri hau, esan bezala, mende honen hasierara arte. Etxeandi izendatu arren, Galardi-Torre edo Zurraderokua bezala ezagunagoa zen, azken izen hau, bertan larruak zabaldu eta tiratzen zirelako. Lehen aipamenak XVI. mendekoak dira, eta Loiolarrak eta Ozaetarrak bizi ziren bertan. XVII. mendean Eguren, Irimo eta Bidaurretarrak bizi izan ziren. Aipatzekoa da San Inazioaren arreba, Madalena izenekoak, bizi izan zela bertan, eta pentsa daiteke, behin baino gehiagotan etorriko zitzaiola anaia bisitan. Olanan konpontzen bukatzen dutenean, Mankomunitateko enpresa ekimenerako beste zentro bat izango da. /AINTZANE IRIZAR/ ITURRIA: IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZEN 'ANTZUOLAKO BASERRIAK ETA ERROTAK'

ANTZUOLAKO HIZKERAN

ESAMOLDEA

• TIRUA BOTA

1. Gezurra edo exajerazio bat esatea. *Horrek botatzen jittuk tiruak!*

2. Hizkuntza batean gaizki esaten den horri eta horrek sortzen duen belarriko minari esaten zaio. *Gure mutikuak botatzen ditte tiruak, euskeraz ahaztu egin bihar jaku! Orrek euskeraz ez dau ikisiko sekula formal, gaizki egiten dau, e! Tiro batzuk botatzen ditte!*

ATSOTITZA

• **Baita tokau be astuai polaiñak, ta txarrixai erlojua.** Pertsona batek merezi ez duen gauza ematen zaionean esaten da; pertsona batek berarekin bat ez datorrena janzten duenean ere erabili ohi da.

HITZAK

• KIKILI-MAKALA

Ondoezik edo ondo ez egotea.
- *Ze moduz zae?*
- *Kikili-makala, ez nabil oso ondo.*

• LANBRO ZIRIÑA

Lanbroari esaten zaio, baina itxia izan beharrean, gutxi denean, xehe-xehea denean. *Lanbro zirintxo bat da, baiña zihero bus-titta etorri naiz.*

Jone Larrañagaren

'Antzuolako hizkera' liburutik

ATREBENTZIA EZ PADA/ Hirugarren Mundura dirua bialdu izan dozu?



JUAN TOMAS EROSTEGI
41 urte

Normalian ez dot emoten, baiña biharrezkua dala ikusten badot, prest egoten naiz dirua emoteko. Ondo ikusten ditut horrelako ekimenak.



KARMELE SUKIA
51 urte

Ez daukat ohitturarik dirua emoteko; bestelako gauzak bai, emon izan ditut Hirugarren Mundurako, jana eta horrelakuk.



MAXIMO FERNÁNDEZ
40 urte

Oin ez daukat ohitturarik, baiña lehen, mezetan beti botatzen neban dirua biharra zeukenei lagun egiteko. Elixiak eskatzen dabenian, emoten dot.



PILI NEIRA
35 urte

Noizian behin laguntzaren bat emoten dot, baiña ez behar beste, batzuetan zalantzak eukitzen ditut eta diru hori iritsiko ete dan.



ANTONIO FERNÁNDEZ
50 urte

Ez daukat bat be ohitturarik dirua emoteko, sekula ez dot bialdu. Gaiñera, planteau be, sekula ez dot horrelakorik planteau.

LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

Juan Cruz
ARGAZKIAK

Herriko plaza 4. ☎ 943 78 70 66. ANTZUOLA

GoROSTi Taberna

943 76 62 96
Zurrategi plaza
ANTZUOLA

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Bildegia: 943 78 70 40

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2001eko azaroaren 30a / 77. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Autoek abiadura jaisteko neurriak hartu ezean, koordinakundea sortzeko prest


OXEL EROSTARBE

Herritik igarotzen diren autoen abiadura murrizteko hartu beharreko neurriak direla eta, bilera izan zen astelehenean udaletxean. Bertan izan ziren Patxi Basauri alkatea, Alberto Olalde aparejadorea, eta euren iritzia azaldu zuten zenbait herritar.

Aspalditik datorren kontua da, autoak abiadura handian igarotzen direla herritik. Maltzaga eta Arrasate arteko ibilbidea, eta Durango eta Eibar artekoa egiten dutenak ere Elgetatik igarotzen dira aspaldian, bide horietan egoten diren auto ilarak direla eta.

Bileran, herritarren iritzia batu zituzten, ondoren Diputazioari proposamenak egiteko, herritik igarotzen diren bideen ardura berea da eta.

Diputazioak ez du uzten abiadura jaisteko plastikozko bandak jartzea. Horregatik, eta oinezko eta ezinduei erraztasunak emateko ere balioko dutelako, zebra bide altxatuak jartzea dela konponbidea erabaki zuten. Bileran, zenbat zebra bide jarri beharko dituzten eztabaidatu zuten.



Zebra bide altxatuak, herriko irteera guztietan eta zenbait kaletan jartzea erabaki zuten bileran.

KOORDINAKUNDEA SORTZEKO PREST

Abiaduraren ganean neurriak hartzen ez badute, koordinakundea sortzeko prest agertu ziren zenbait herritar.

Diputazioari, neurriak ahalik eta epe motzengatik hartzea eskatzea erabaki zuten bileran. Proiektua egin eta aurrera eramanean orduko denbora dexeñte

pasa daitekeela ere komentatu zen. Zebra bide altxatuak jarri bitartean, herriko sarreratan plastikozko bandak jartzeko baimena eskatuko du Udalak.

Herritik auto gehiago igarotzeak, handitu egin du istripuak gertatzeko arriskua

Salbador eta Artekalen, plazan eta irteeretan beharko lirateke zebra bide altxatuak

Neurririk ez badute hartzen, zenbait herritar koordinakundea sortzeko prest daude

HERRITARREN HITZA / Ainhoa Agirreazaldegia • Bertsolaria

Txapelketa nagusia

Desiatzen nago finala iristeko. Baina gozatzen ari naiz bidean. Giroa, aparta. Bertsolariak, prestatuta bezain prest. Txapelketa Nagusiak abiadura polita hartu du. Orain lau urteko finalak, orain zortzi jokatu zenak baino maila apalagoa erakutsi zuela diote hainbat kritikaririk. Nik ez dakit hobea ala txarragoa izan zen, baina azken finaleko bertso bikain asko ez ziren 1993koan entzun. Ezin ziren entzun.

Gauza bera gertatzen ari zait aurtengoarekin. Txapelketa guztietan gertatu ohi den bezalaxe, alde guztietako iritzia daude. Nik ere badut

nirea. Aurten entzundako bertso askok eragin didate zirrara arrazoi bategatik nahiz besteagatik.

Teknikoki, bertsolari batzuek harrigarriro harritu naute. Hainbaten irudimena irudikaezina litzaidake aditu ezean. Zenbaiten hizkerak hitzik gabe utzi nau. Gogoeta batzuek asebate egin naute, zinez. Urliaren diskurtsoa antolatzeke modua aski gozamen izan da. Bertsolari batzuek



“Azkenaldiko igande arratsaldeak, ez dira hain grisak”

lapurtu dizkidaten hainbat irribarre lapurtzeko moduek, lapurrek profesionalak izan behar dutela pentsarazi didate. Bertso eta bertsolari batzuen azkartasunak txapel astunen bat airean eramane behar zutelaren iruditu zait.

Bertsolari guztiek ez dituzte dohain guztiak,

baina bakarra ere aski da une batean entzuleon belarrietarako. Honi guztiari txapelketako tentsioa gehitzen zaiola kon-

tuan hartuta, benetan diotsuet azkenaldiko igande arratsaldeak ez direla orain arteko igande arratsalde grisak. Eta larunbatetik lehen baino larunbatago dira.

Txapelketa Nagusiari jarraipena egin ez diozuen guztiok, oraindik denboraz zaudete. Lau urtez behin da. Etorkizuneko belaunaldiarekin zalantzak dituenak, zalantzarik izan behar lukeen, zalantzan utziko du. Bat-bateko sorkuntza hau gaur egun zein mailatan dagoen ikusita, plazer handi bati eta ohore txiki bati atea ixten ari zarete. Emaiozue aukera bat (zeuen buruari).

LABUR

Goibeko Kultura Elkartearen Gabonetako loteria

Gaurtik aurrera, herriko den da eta taberna guztietan saltzen dago Goibeko Kultura Elkartearen Gabonetako loteria.

Goibekokale argitaratzeaz arduratzen da Goibeko eta atera duen Gabonetako loteriaren zenbakia 44.170 da. Eguna zehaztu ez badute ere, Goibeko Kultura Elkarteak, urteroko batzar orokorra egitekotan dira, Espaloia Kafe Antzokiaren proiektua, GOITB eta beste zenbait gai aztertzeke.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIXAK

Medikua 943 76 81 93
DYA 943 46 46 22
Gurutze Gorrixa 943 22 22 22
Odol emaitzariak 943 76 16 24
Hies Ekimena 943 79 26 99
Ertzaintza 943 76 53 40
Suhiltzaillak 943 78 28 00

GARRIAUAK

Taxiak 943 79 12 22
Pesa 902 10 12 10

UDALA

Buleguak 943 76 80 22
Faxa 943 76 82 89
Kiroldegia 943 76 82 84
Eskolia 943 76 82 26

BESTELAKUAK

Parrokia 943 76 81 45
San Andres Parrokia 943 20 11 51
Farmazia 943 78 81 50
Goibeko K.E. 943 78 90 85
Goibekokale (Goienkaria) 943 79 92 71
Gaztetxea 943 78 90 43
Guraso Elkartea 943 76 82 26
Ozkarbi K.J.E. 943 76 81 49
Intxorta K.J.E. 943 76 81 46
Ozkarbi Pilota Taldea 943 76 81 49

MEZAK

Zapatuetan iluntzeka 19:30ean
Domekatan eguerdiko 12:00etan

OHARRAK

**ESKOLAKO HAURRENTZAT
FILMA ABENDUAREN 3AN**

Abenduaren 3an arratsaldeko 15:00etan, *El gigante de hierro* filma emango dute eskolako haurrentzat. Emanaldira eskolako haur guztiak joango dira. Kutxa eta Eskolaren artean antolatu dute ekitaldi hau.

IRAKURLIAREN TXOKUA

Irakurliok, zuen eritzia emoteko eta dittuzuen keak kalera ataratzeko, hau atalau erabili zeinkie. Komeni da astelehen aurretik, zuen eritzia, udaletxe azpitan dagon Goibekokaleko buzoian laga edo bestela *goibekokale@goiena.com* helbidera bialtzia. Gutunak 1.700 karaktere ingurukua izan biharko dau. Gutunakin batera, izen-abizenak, telefonua eta nortasun agiri zerbaki-xa bialtzia garrantzitsua da, argitaratu aurretik zuekin harremanetan jarri gaittezen.

ASTEKO GAIA

Hiesaren Nazioarteko Eguna dela eta ekitaldi ugari antolatu dituzte Gaztetxeak

O.E.

Abenduaren 1ean Hiesaren Nazioarteko Eguna dela eta, zenbait ekitaldi antolatu ditu Gaztetxeak. Urtero bezala Eskualdeko Hies Ekimena taldearekin batera antolatu ditu asteburuko ekitaldiok. Hiesaren gaia kalera ateratzea nahi dute Gaztetxeak.

Antolatutako ekitaldien bidez, herritarrek, Hiesaren gaiarekin kontzientziatzea gura dute Gaztetxeak.

Asteburuan, Hiesaren Nazioarteko Eguna dela eta, ekitaldi ugari antolatu dituzte, Hiesaren gaia kalera ateratzeko asmoz.

Urtero bezala, Eskualdeko Hies Ekimena taldearen laguntza izan dute herriko gazteek, Hiesaren inguruko ekitaldi hauek aurrera eramane eta antolatzeko orduan.

Barikuan, arratsaldeko 18:30etik 20:00etara, Hiesaren inguruko erakusketa izango da

ikusgai Kultura Etxean. Zapatu arratsalderako bideo emanaldia antolatu dute. Arratsaldeko 17:30etik aurrera *La niña de mis ojos* pelikula izango da ikusgai Gaztetxean.

Ondoren, urtero bezala, merienda izango da. Arratsalderan ikusitako bideoaren inguruko eztabaida sortzeko asmoarekin.

Domekan bukatuko dira Hiesaren inguruko jardunaldiak. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera *Zure esku dago GIBaren aurkako tratamendua eguneroko bizimoduan* dokumentala, emango dute. Dokumentala eta gero, Hies Ekimena taldearekin batera, asteburu osoan ikusitakoaz berba egiteko aukera izango da.

DEFENTSA PERTSONALEKO IKASTARORAKO IZEN EMATEA ZABALIK

Abenduaren 6an hasiko da defentsa pertsonaleko ikastaroa. Parte hartu nahi dutenek liburategian edo Gaztetxean dute izena emateko aukera. Argibideak 943 78 90 43 telefono zenbakian jaso daitezke.



Hiesaren inguruan eztabaidatzeko aukera izango da asteburuan Gaztetxean.

KIROLA

Ubera eta Laskurain DVko finalerdietan

O.E.

Aurreko barikuan 22 eta 13 irabazi eta gero, DV txapelketako finalurrekoetarako sailkatu dira Ubera II eta Laskurain. Aurretik, ordea, Gipuzkoako klub arteko txapelketaren finalurreko partida jokatu beharko dute domeka honetan.

Partida hasiera kaskarra egin zuten Xabier eta Haritzek, 8 eta 12 atzetik izan ziren eta markagailuan. Orduan arriskatu, eta ondo atera zitzaizen, partida 22 eta 13ko emaitzaz amaitu zen eta.

Abenduaren 5ean, finalurrekoa jokatu dute Arrasaten Xabier eta Haritzek, Sorrairen eta Zapiainen aurka.

OZKARBIA, FINALURREKOAK DOMEKAN

Domekan, 11:30ean, Gipuzkoako klub arteko binakako txapelketaren finalurrekoan, Xabier eta Laskurainek, Oteiza eta Erroizenearen aurka jokatu dute. Aurreko astean, Arantzeta eta Laskurainek, Añorgan jokatu zuten kanporaketako lehen partida, eta 22 eta 19 irabazi egin zuten. Kluben arteko banakako ligaskan, Peñalverrek Dominguez izango du aurkari.



Hasierako urduritasuna galduta, erraz irabazi zuten partida Xabier eta Haritzek.



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949



Trokelak eta estanpazioa
**TROKEL PROGRESIBOETAN
ESPEZIALDUAK**

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 943 76 80 50 / 78 90 31
Faxa: 943 76 82 43

**Uriburu UTEK
saltzen du:**

Domingo Iturbe kalean
ETXABE KOMERTZIALA
Etxe berrien azpian
PREZIO INTERESGARRIAK

943 76 11 23
670 781 759

ERRETRATUZAHARRA

Santioneko
txokoko
tertuliak

Oso preziatua zen sukalde alboko txokoa Santioneko tabernan. Orduak eta orduak pasatzen zituen jendeak hantxe tertulian. Txikiteoan baino denbora luzeagoa, seguruena. Argazkia 1962 eta 1964 artekoa da. Segurua ez den arren, badirudi domeka edo jaiegun baten ateratakoa dela; izan ere, argazkian agertzen direnak jaiegunetako arroparekin daude, alkandora zuriarekin gizezko gehienak. Zenbat eta zenbat kontu esan ote zituzten hainbat antzuolarrek Santioneko txoko horretan! Gaur egun, berriz, itxita dago tabernajaketxe hura. Argazkian Joxe Balda *El Diario Vasco* egunkariko Antzuolako berriemailea izandakoa ageri da, pertsonaia interesagarria, benetan. Badirudi herriko jaietan egin ohi zuten egunkariko erreportajerako argazkiak ateratzera etorri zen argazkilariak egin zuela argazkia, orduan ez zegoen-eta argazki kamerarik zeukan jende askorik Antzuolan. Argazkian, ezkerretik eskumara,



honakoak azaltzen dira mahaiaren bueltan: Tiburcio Larrañaga, Tomas Larrañaga (mutikoa), Jose Mari Laskurain, Isabel Elortza, Jose Balda, Rosarito Iartza, Eulogio San Sebastián eta Julian Lizarralde.

Argazkia: Kontxi Elortza

ADI IRAKURLE!


Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Kalebarren-
dik plazarako
bidea

Jende asko gogoratuko da, seguru, zelan zegoen Kalebarren duela 30 urte inguru. 1970eko hamarkadan etxebizitza asko egin zituzten, bai Antzuolan baita inguruko herrietan ere.

Eskumako argazkian ageri den Miota etxea bota, eta gaur egun frontoi aurrealdean dauden etxeak egin zituzten; horrela, zeharo itxuraldatuta geratu zen inguru hura.



1971 Estilo kolonialeko etxe ederra zen Miota. Argazkia etxea bota aurreko urtekoa da, 1972an bota zuten-eta.



2001 Frontoi aurrean dauden etxeak egin ahal izateko bota zuten Miota etxea. Gaur egun plazan dagoen iturria ere tokiz aldatu behar izan zuten.



**Manufacturas
LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikuluak
- Seinaleztapena
- Jantziak

Leizeaga 1. BERGARA
Tf. / faxa 943 76 59 53.



Zumelaga
JATETXEA

59 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943.76.20.21

**Zuri Beltz
margoak**

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma
Pintura zerbitzu osoa
Moketak


943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tel. 943 71 24 25
BERGARA



Unibertsoko azken filmak, Iralan



IRALA
VIDEOMATIC Plus Bideoak

Simon Arrieta 4.
Tel.: 943 76 21 81. Faxa: 943 76 73 33.
video_irala@jet.es



BASTIDA SUKALDEAK

Ibargarai 36-38ra pasatu gara, lehengo dendaren parera.

Zatoz modelo berriak ikustera.



Ibargarai 36-38 BERGARA. Telefonoa eta faxa: 943 76 70 58





Orain, European ere, Bezere desberdinentzat Aukera desberdinak.

Orain, Zure Europako bezeroei egindako bidalketen baldintzak erabaki ditzazkezu. EUROPREMIUM zerbitzuarekin, behar dituzun opzioak aukeratu: Interneten bitartez jarraipena egitea, Arrisku orotarako aseguruua, mugako kudeaketa, jaso izanaren agiria.....Horrela da Euro Express-en paketeria zerbitzua, Guipuzcoana Euro Express eta beste sektoreko enpresa europear liderrak elkartzen dituen paketeria sarea 20 herrialde baina gehiagotan. Galdetu eta ikus ezazu: zure enpresarako bezere bakoitza berezia bada, Euro Express-entzat ere.

943 763 642

Bergaran, San Juan Auzoan



www.guipuzcoana.com

 **GUIPUZCOANA**
EURO EXPRESS